

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Sansinenea Azurmendi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Parte Zaharrean jaioa, familia Grosen bizi zen gerra hasi zenean. Aita frontera joan zen; ama eta biak, Bilbora; bueltan, etxerik ez zuten. Ama Zegamakoa zen, eta haraxe joan ziren bizitzera. Zegaman ibili zen eskolan hasieran, eta 10 urterekin Tolosako eskolapioetan sartu zuten; hiru urte egin zituen han. Donostian bizi izan ziren handik aurrera, amak denda jarri baitzuen Antiguan. Besteak beste Merkataritza ikasi zuen Patxik, eta Kutxan hasi zen lanean. Hantxe ibili da erretiratu arte. 25 urterekin ezkondu zen; emaztea ere donostiarra du, Ondarretakoa. Pilotazalea da, eta euskararen alde ere jardun du lanean, besteak beste Jakintza ikastola sortzen.

Zintak

DON-028

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-07
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Donostia, Bilbo eta Zegama arteko umezaroa

- **Erref:** DON-028/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:01:27. **Bukatu:** 00:02:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Parte zaharrean jaio zen, baina urte bat zuela, gerra garaian, amarekin batera Bilbora joan zen. Handik lau urtetara Grosera bueltatu ziren, baina aurretik zutena erreikisatu zenez amaren herrira, Zegamara, joan behar izan zuten.

Hamar urtera arte egon zen bertan, Tolosako eskolapioetara joan baitzen interno hiru urtetarako.

2. Euskaraz egiten zuenarentzako kanika

- **Erref:** DON-028/003
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:02:52. **Bukatu:** 00:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerra ostean amaren jaioterrira, Zegamara, joan zen eta bertako eskolan ibili zen. Maisua euskalduna izan arren, ezin zuten euskaraz egin. Kanika bat erabiltzen zuten euskaraz egiten zuena markatzeko. Egunaren bukaeran hatz puntetan erregela batekin jotzen zituzten euskaraz berba egin zutenak. Patxik bazekien gaztelaniaz Bilbon ikasi baitzuen, baina Zegamako gehienek ez zekiten.

3. Gerraostean etxea okupatuta eta aita hiltzear

- **Erref:** DON-028/005
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:05:32. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Grosetoko Birmingham kalean bizi ziren, baina gerraostean ezin izan zuten etxera sartu. Errejimenekoak omen ziren etxea okupatu zienak, eta beraiek ez zuten ezertarako eskubiderik ezta kexatzeko ere. Aita gerratik gaixo etorri zen eta laster hil zen. Orduan, Zegamara joan zen amarekin batera, hangoa baitzen ama. Paper-lantegian gutun-azalak egiteko lantegia ere bazuten, eta ama bertako arduradun jarri zuten. Kontu kurioa da; izan ere, bere ama abertzalea zen eta lantegikoak ez.

4. Mojetan egindako gaizkakeria

- **Erref:** DON-028/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:44. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Zegamako frontoi atzeko sagastira askotan joaten ziren, beraiek jaten zituzten hango sagar eta udare gehienak. Zazpi bat urte zituela mojen ikastetxean ikasten zuen Zegaman bertan eta orduan lagunaren artean egindako gaiztakeria bat kontatzen du. Zigorra ere jaso zuten. Moja jatorrak ziren hangoak.

5. Zegaman neska-mutilak beti elkarrekin

- **Erref:** DON-028/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Jolasean neska-mutilak elkarrekin aritzen ziren, ondo konpontzen ziren. Hamar urterekin ere dantzan aritzen ziren, betiere sueltoan. Herri txikia izan arren, gauza asko zeuden herrian, igandetako plazako musika, esate baterako.

6. Eskolapioetako esperientzia ona

- **Erref:** DON-028/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Hamar urterekin Tolosako eskolapioetara joan zen, etxetik ateratzen zen lehen aldia zen eta larritasuna pasatu zuen, baina bertan asko ikasi zuen. Ez zuten diziiplina zorrotza. Matematikan ez zuten memoriaz ikasten dena, dena logikaz ikasi behar zuten, zergatia jakin behar zuten beti. Fraideak ziren maisu gehienak.

7. Kaletarrentzan "Patxi" eta baserritarrentzat eta fraideentzak "Patxi"

- **Erref:** DON-028/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:14:24. **Bukatu:** 00:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Zegamako kalean, "Pako" edo "Pakito" deitzen zioten Patxiri, baserritarrek, aldiz, Patxi. Eskolapioen ikastetxean ere Patxi esaten zioten, nahiz eta denak erdaldunak izan, nafarrak gehienak. Fraide bakarra zen euskalduna, baina Patxi ez zuen harekin hartu-emanik.

8. Erraz integratu zen Antiguán

- **Erref:** DON-028/013
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Hamahiru urte zituela Donostiara bueltatu ziren Patxi eta bere ama. Gerra zela-eta, bertatik alde egin baitzuten. Antiguara bueltatu ziren, amak denda bat zabaldu baitzuen bertan. Laster egin zituen lagun berriak. Bera heldu zenean, Antigua Matia kalea baino ez zen eta lantegi asko zituen auzoa zenez, langile auzoa zen. Amari ere laguntzen zion dendan: goizez ikasi eta arratsaldean dendan.

9. Errazionamenduko jeneroa zuten dendan

- **Erref:** DON-028/015
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:22:17. **Bukatu:** 00:23:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bere amak Antiguan janari-denda zuen. Patxik bertan ezagutu zuen errazionamendua. Kupoia "abastos"en entregatu behar izaten zuten, Okendo kalean zituen gobernu zibilak bere bulegoak eta baita "abastos" ere.

10. Estraperlokoa jeneroa salgai

- **Erref:** DON-028/016
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:23:48. **Bukatu:** 00:24:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Estraperloko ogi zuria saltzen zuten amaren dendan, gerraosteko errazionamenduko ogia beltza eta gogorra baitzen. Leku desberdinetatik ekartzen zuten ogi hori eta Bretxan ere saltzen zuten. Estraperloko olioia ere bazuten, ohikoa zen hori. Patxik ez zuen gosea ezagutu, ezta Zegaman ezta Antiguan ere.

11. Soldata kobratutakoan ordaindu dendetako zorrak

- **Erref:** DON-028/017
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:24:49. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Langile jendeak ere orokorrean ez du uste gosea pasa zuenik, nahiz eta denek ez izan jateko dirurik. Jendeak soldata kobratzerakoan ordaintzen zituen zorrak, dendetan zorrak izatea ere normala baitzen eta bakoitzak bere kartilla

zuen dendan. Antiguako emakumeak etxeko batarekin eta zapatilekin irteten ziren erosketak egitera.

12. "Antigua: Donostia barruko herri bat"

- **Erref:** DON-028/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Antigua Donostia barruan zegoen herri koskor bat dela esaten omendu du beti Patxik. Matia kalean "a San Sebastian 2 km." jartzen zuen kartel bat omen zegoen. Lizarriturri lantegiaren ondoan zeuden etxeak bertako langileenak ziren. Bi baserri zeuden auzoan.

13. Konporta auzoa eta erreka

- **Erref:** DON-028/019
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:27:51. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Konporta auzo txiki bat zen, lau-bost baserri zituen. Konporta erreka izena zen eta hortik datorkio izena zonaldeari ere. 'Haizearen orrazia' eskultura dagoen tokian itsasoratzen zen eta arrain asko zegoen inguru hartan. Korrokoi eta erla asko arrantzatzen zituzten bertakoek eta gero tabernan zotz egin. Urumean, Kursaaaleko zubian, jende asko aritzen zen arrantzan eta frantziarrek erosten zieten arraina.

14. Gerraosteko gosea arrantzaleek arindu zuten

- **Erref:** DON-028/020
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:30:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Gose garaian arrantzaleek asko lagundu zuten. Jendea kaira joaten baitzen arrain bila eta arrantzaleek sobran zutena ematen zien.

15. Irrati nobelak eta 'Radio Pirenaica'

- **Erref:** DON-028/022
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Etxean irratia zuten, garrantzitsua zen orduan. Eguerdian nobela bat botatzen zuten eta emakume guztiak etxean gelditzen omen ziren. 'Radio Pirenaica' kateko berriak ere entzuten zituzten isil-isilean, era klandestinoan.

16. Kutxan lehen konfiantzazko harremana zuten bezeroekin

- **Erref:** DON-028/025
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:36:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

Patxi Kutxan lanean hasi zenean gauzak oso ezberdinak ziren. Lanean hasi zenean dena egin behar zuten eskuz. Bera hasi eta pixka batera sartu zen lehen ordenagailua. Bezeroekin hartu-eman ere desberdina zen, denetarik kontatzen zieten, konfiantza guztiz.

17. Antiguako pilota-torneoa

- **Erref:** DON-028/027
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:37:46. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Patxi pilotazalea da ume-umetatik. Antiguako bederatzi elkartek martxan jarri zuten pilota-txapelketa Patxik berak bultzatuta. Elkarriketa 2009. urtean egin zitzaion Patxiri eta ordukoa 49. edizioa zen. Auzoan ez dute promesa handirik izan. Pilota-eskola ere osasuntsu dago.

18. Antiguako sagardotegiak

- **Erref:** DON-028/029
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Antiguan sagardotegi dezente zituzten, hamabitik gora. Horietako batzuk aipatzen ditu Patxik. Ibaetan ere beste hainbat zeuden.

19. Lanetik atera eta tabernara edo sagardotegira

- **Erref:** DON-028/030
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:45:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardotegiz sagardotegi ibiltzeko ohitura zuten. Bakoitzak bere jatekoa etxetik eramaten zuen eta lanetik irten eta gero tabernara edo sagardotegira joaten ziren. Askori andreak eramaten zien jatekoa tabernara. Ez du gogoan emakumerik ikusi izana tabernetan.

20. Sagardoa txotx bakoitzeko ordaintzen zen

- **Erref:** DON-028/031
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:45:28. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardoa txotxean ateratzen zuten basoan edo pitxerrean. Basoko ordaintzen zuten. Gogoan duen preziorik merkeena basoko 10 zentimokoa da. Sagardotegi bakoitzak bere dolarea zuen eta inguruko sagarra erabiltzen zuten horretarako.

21. Txikiteoko giroa eta Guardia Zibila

- **Erref:** DON-028/032
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:48:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Tabernetako txikiteoan ardoa edaten zen. Arratsaldean karta-jokoan aritzen ziren eta gauean berriro ere txikiteoa. Kuadrilla batzuk pixka bat berotu eta gero kantuan aritzen ziren. Askori ez zitzaien gustatzen, erdaldunak ziren eta. Guardia Zibilen kuartela ere ondoan zuten, baina horrekin ez zuten inoiz arazorik izan. Melitón Manzanas hiltzerakoan gogortu omen zen egoera. Guardia zibilak ezagunak ziren auzoan, baserritarrek ere beraienean ateratzen zuten eskopetarako baimena.</p>

22. Gaztetako erromeria eta dantzaldiak

- **Erref:** DON-028/035
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:50:44. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Gaztetan Pasaiaira joaten ziren dantza egiten ikastera bertako neskekin. Handik Errenteriara edo Hernanira joaten ziren, azken hauetakoa beste maila bat zen-eta. Zahartxoagoak zirela, Igeldora eta Groseko sala batera joaten ziren. Ez ziren hain dotore janzten, baina bai igandeko arrokekin. Mutilek eskatzen zien neskei dantza egiteko, beraiek erabakitzen baitzuten. Betiere "faborez" eskatuz, noski.

23. Jakintza ikastolaren hastapenak

- **Erref:** DON-028/036
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Patxi Antiguara bizitzera etorri zenean, euskara galtzen hasia zegoen, kanpoko jende asko etorri baitzen lanera. 1964. urtean jarri zuten ikastola martxan, baina 1962. urtean jada bi ikasle hasi ziren Aintzane andereño zizurkildarrarekin. Elbira Zipitriak zabaldu zuen lehen ikastola Alde Zaharrean eta haren bitartez trebatu ziren beste hainbat ere. Handik sortu ziren gerora Santo Tomas Lizeoa edo Orixe ikastola.

24. Antiguarra, baina Goierriko hizkera

- **Erref:** DON-028/038
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:57:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Kanpotarren seme-alabek euskara ikasi dute eta asko aldatu da euskararen egoera Antiguan. Patxik Goierriko ukitua du, bertan ikasi baitzuen euskara, ama bertakoa baitzuen.

25. San Sebastianetan angulak jaten zituzten

- **Erref:** DON-028/040
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:59:37. **Bukatu:** 01:01:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Sebastian Eguna Antiguan nola ospatzen zuten azaltzen du. Bezperan

danberrada egiten zuten eta igandean erromeria eta pilota-partidua. Angulak jaten zituzten, Aginagako (Usurbil) eta Irun aldeko angulak batez ere, orduan merkeak ziren. Hendaiaok merkeagoak ziren, kilo 50 bat pezeta, haragia baino merkeagoa.

26. Zinemara pelikula mamitsuak ikustera

- **Erref:** DON-028/045
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:12:44. **Bukatu:** 01:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Gaztetan Igeldora asko joaten zen, hara joatea zen bertakoentzat mendira joatea. Ez zuten funikularra erabiltzen, ez zuten horretarako txanponik. Neska-lagunarekin serio hasi zenean, asko joaten ziren zinemara. Donostiako zinema-aretoetara joaten ziren, Antiguan ez zegoen-eta. Katekesikoek jarri zuten areto txiki bat, baina ez zuen askorik iraun. Zinematik irteterakoan garrantzitsua zen kafetegi batetara joatea eta ikusitakori buruz hausnartzea, zer pentsa ematen zuena ikustea du gustuko.

27. Etxea eta denda lotuta

- **Erref:** DON-028/047
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:16:51. **Bukatu:** 01:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Etxean zer jaten zuten. Denda zutenez edozer gauza jaten zuten. Etxea denda atzean zuten, dendari lotuta. Horrelako egitura zuten denda askok. Janari-denda asko zeuden.

28. Baserritarrek dendara saltzera

- **Erref:** DON-028/048
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:18:23. **Bukatu:** 01:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrek beraien dendara ere eramaten zituzten produktuak. Kaletarrak pitxarrarekin joaten ziren baserritarrengana esnea eroztera.

29. 1959ko krisian katu guztiak jan zituzten Antiguan

- **Erref:** DON-028/050
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:20:50. **Bukatu:** 01:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Krisi industrialak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

1959an krisi handia zegoen. Etxeetako patioak arrain hondarrekin beteta zeudenez, katu asko zebilen. Baina 1959ko urte hartan, katu guztiak desagertu ziren, sagardotegietan jaten zituzten-eta. Antiguako askok ezin dute esan ez duenik katua jan. Jendeak bere bizimodua larri, baina ondo pasatu duela dio.

30. Baserritarrek txerri jana batzen

- **Erref:** DON-028/051
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:22:49. **Bukatu:** 01:23:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserritarrek kaleko etxeetan txerri jana batzen zuten, etxeetan sobratzen ziren janari hondarrak.

31. Alokairuzko bizikletak

- **Erref:** DON-028/052
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:23:29. **Bukatu:** 01:25:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Patxik bazuen bizikleta, baina ez zuten denek ere. Antiguako eta Igeldoko askok bazuten. Patxik bigarren bizikleta frantses bati erosi zion. Alokairuzko bizikletak ere bazeuden, orduka alokatzen ziren. Neskak goiko koadroaren azpian hankak jarrita joaten ziren.

32. Antiguako askok ez dakite igerian

- **Erref:** DON-028/053
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:25:23. **Bukatu:** 01:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Antiguan denak joaten ziren hondartzara; hala ere, auzotar askok ez dakite igerian. Patxik Zegaman ikasi zuen, errekan. Bere ustez errekan errazago ikasten da.

33. Bainujantziak, kabinak eta hondartzako ohiturak

- **Erref:** DON-028/054
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:26:30. **Bukatu:** 01:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Hondartzarako bainujantzi normala zutela dio. Berak ez du sekula kamisetarik erabili. Emakumeak gonatxoarekin joaten ziren. Beraiek Ondarretara joaten ziren. 14-15 urterekin Konporta errekako uretan ere bainatzen zen. Beraiek ez zituzten hondartzako kabinak erabiltzen. Neskak ez ziren askorik bainatzen eta burutik sartzten zen zaku antzeko baten azpian aldatzen ziren arropaz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com